

GZEEP GOI MAILAKO HEZKUNTZAKO ELEANIZTASUNAREN ALDEKO ADIERAZPENA

Dokumentu honek ondorio juridiko loteslerik ez duen arren, konpromiso publikoa adierazten du goi-mailako hezkuntzan (GMH) eleaniztasun-politikak aktiboki eta modu eraikitzailean garatzen laguntzeko. Adierazpena sinatu ahal izango dute alfabetatze eta epistemologia eleaniztunekin, hizkuntza-aniztasunarekin eta hizkuntza-eskubideen errespetuarekin zerikusia dutenek, eta, zehazki, honako hauek: a) ikerkuntza-unitate/unitate akademikoek, erakundeek, federazioek, elkarteek (entitate juridikodun eta gabekoek), b) banakako pertsonak, unitate akademikoetako kide gisa eta hezkuntzan hizkuntzekin aktiboki inplikaturako beste organo sozial batzuetako kide gisa.

HITZAURREA

Gero eta goi-mailako hezkuntza-erakunde (GMHE), estatu-mailako eta nazioz gaindiko politika-agentzia gehiagok dute interesa nazioartekotze-politiketan. Hauek, diotenez, gero eta lotuago dagoen mundu honetan hezkuntzaren kalitatea hobetzea dute helburu. EBren kasuan, “Europako Hezkuntza Esparruaren” testuinguruan, nazioartekotze-politiken ekimenak goi-mailako hezkuntza-sistemen artean ekitate handiagoa lortzera bideratuta daude. Horretarako, nazioz gaindiko lankidetzak, GMHEen arteko aliantzak eta EBko estatu kideen arteko lankidetzak sustatuko dira, hezkuntza- eta prestakuntza-sistema nazional inklusiboak sortzeko. Hala ere, nazioartekotzeak gero eta gehiago ekarri du ingelesa “lingua academica” gisa erabiltzea, ingeles bitarteko irakaskuntzara (IBI) eta Goi-mailako Hezkuntza (GMH)ren “ingelesatzera”. Irakaskuntzan, ikerketan, argitalpen akademikoetan eta harreman sareak sortzean ingelesa soilik erabiltzeak dakartzan eragozpenei buruzko ebidentzia handia badago ere, gero eta gehiago sustatzen dute hau estatuetako agintariak eta arduradun politikoak, ingelesa garapen ekonomikorako, modernizatorako eta komunikazio globalerako bitartekari dela uste baitute. Hala ere, ingelesa erabiltzeak hizkuntza ofizial/nazionalaren, eskualdeetako edota eremu urriko hizkuntzen kontura, esparru jakinetan ez erabiltzea eta hizkuntza-eskubideek ukatzea ekar dezakete. Gainera, ingelesa erabiltzeak, kultura-kapitala errekonozitzen ez zaien hizkuntzen kaltetan, ondorioak ditu hizkuntza-aniztasunean eta kultura-aniztasunean, eta ezagutza soziala eta epistemologikoa pobretzen ditu.

ADIERAZPEN OROKORRA

Gizarte Zibilaren Eleaniztasunerako Europako Plataformak (GZEEP, ingelesez ECSPM) idatzitako “Goi Mailako Hezkuntzako Eleaniztasunaren aldeko Adierazpena”-ren sinatzaileek “Komunikazio Zientifikoa Eleaniztasunerako Helsinki Ekimena¹”ren oinarritzko printzipioak sustatzen dituzte, eta hizkuntza-politiken honako erabaki eta praktiketan laguntzeko konpromisoa hartzen dute:

- hainbat hizkuntzaren erabilera babestea eta sustatzea GMHEen, hizkuntza ofizialez gain, gobernantza, ikerketa eta argitalpen, irakaskuntza eta komunikazioan.
- eleaniztasuna bermatzea eta sendotzea, batez ere irakaskuntzan eta ikaskuntzan eta nazioz gaindiko ikerketa-lankidetzan eta

¹ Hona hemen Eleaniztasunerako Helsinki Ekimenaren laburpena (<https://www.helsinki-initiative.org/es>):

(1) Ikerketaren emaitzak gizartearen onurarako hedatzen laguntzea, ziurtatuz: a) ikerlariak ikerketaren emaitzak akademiatik harago zabaltzea eta ondarea, kultura eta gizartearekin harremanak izatea meritu bezala errekonozitzen dela, eta b) ikerketari jakintzarako sarbide-berdintasuna hainbat hizkuntzatan ematen dela; (2) Tokian tokian erreferentziak diren ikerketak argitaratzeko azpiegitura nazionalak babestea, ziurtatuz: a) irabazi-asmorik gabeko aldiak eta liburu-argitaletxeek baliabide nahikoak eta beharrezko laguntza dituztela kalitate-kontrolaren estandar altuei eta ikerketaren zintzotasunari eusteko, eta b) aldiak nazionalak eta liburu-argitaletxeak sarbide irekirako trantsizioan babestuta daudela; (3) Hizkuntza-aniztasuna sustatzea ikerketaren akreditazioan, ebaluazioan, eta finantzaketa-sisteman, ziurtatuz: a) kalitate handiko ikerketa baloratzen dela adituen ebaluazio-prozesuan edozein dela ere argitalpen-hizkuntza edo -kanala, eta b) metrikak oinarritutako sistemak erabiltzean, hizkuntza denetako aldiak eta liburu argitalpenak modu egokian hartzen direla kontuan.

- hizkuntza-teknologiako tresnak erabiltzea hizkuntza ezberdinen erabilera errazteko irakaskuntza eta ikaskuntzan.

SENTSIBILIZAZIOA

GZEEPren Goi Mailako Hezkuntzako Eleaniztasunaren Adierazpenaren sinatzaileek konpromisoa hartzen dute gizarte zibil gisa ondorengo hiru puntuak zabaltzen laguntzeko, alde batetik, beren unibertsitateetako agintarien sensibilizaziorako, eta, bestetik, hizkuntza-politiken, hizkuntza-kudeaketaren eta curriculum-garapenaren arduradunen, ikerketa-unitateetako zuzendarien, ikertzaileen, ikasleen, irakasleen eta administrazioko langileen ezagupenerako:

- 1) Hizkuntza ofizial/nazionalen, etxean/familian edo bestela ikasitako beste edozein hizkuntzatan trebea izateak ez du bermatzen alfabetatze epistemologikoa hizkuntza horretan, eta alfabetatze bernakularrez oso bestelako diskurtso-praktikak dakartza berarekin. Hala ere, biak dira garrantzitsuak bai ikasleek bai irakasleek hezkuntza-testuinguruetan esanahiak eraikitzeko.
- 2) Norberarena ez den beste hizkuntza batean irakatsi edo ikasteen, ezin da/ez da espero behar hizkuntza horren aldaera “natibatu” bat sortuko dutenik.
- 3) Garrantzitsua da unibertsitateko ikasleek eta langileek beren errepertorioetan dituzten hizkuntza eta hizkuntza-aldiera guztiak erabil ditzaten bultzatzea, beren bizitza akademikoko testuinguru desberdinetan komunikazio esanguratsua izan dezaten.

GOMENDIO ESPEZIFIKOAK

GZEEPren Goi Mailako Hezkuntzako Eleaniztasunaren Adierazpena sinatzen dutenek honako gomendio hauek egiten dituzte politika-egileek, nazioz gaindiko, nazioko edo estatuko erakundeek, agentziek, unibertsitateek, ikerketa-erakundeek, ikerketa diruz laguntzen dutenek eta ikertzaileek jarrai ditzaten:

1. Hizkuntza desberdinak (ez ingelesa bakarrik) programa, ikastaro eta moduluetan irakas-hizkuntza izan daitezen aukerak eskaintzea, erakundearen hizkuntza ofizialarekin batera.
2. Hezkuntza-erakunde guztietan badira “ikusezinak” diren hizkuntza asko, eta hizkuntza horiek ikusarazteko eta aitortuak izateko lekua izan behar dute.
3. Hizkuntza-hautaketa egin ahal izateko alde zuzeneko baldintzak ezartzea, hezkuntzaren kalitatea bermatzeko.
4. Erakundearen hizkuntza ofiziala(k) ez d(ir)en beste hizkuntza batean ikastaroak ematen dituzten irakasleek hizkuntza horietan gaitasun epistemologikoa dutela egiaztatzea.
5. Nazioarteko ikasleei komunitate akademikoan integratzen lagundu behar zaie eta, beraz, hizkuntza-trebakuntza saio intentsiboak jasotzeko aukera eman behar zaie.
6. Hezkuntza-esperientzia elebakarrak eta kultura bakarrekoak saihestea (adibidez, bibliografia, tresna teknologikoak edota bideoak hainbat hizkuntzatan eskainiz).
7. Unibertsitate ezberdinetako ikerketa-taldeak unean-unean (elkarrekintzan, ikerketa-emaitzen zabalkundearen, emaitzen argitalpenean) erabiliko duten/dituzten hizkuntzari/hizkuntzei buruzko erabakia har dezaten bultzatu behar da.
8. Hizkuntzen itzulpena eta erabilera paraleloa sustatzea eta hizkuntza-teknologiako tresnetan inbertitzea.

Iritzia: Miren Otxotorena
Berrikusketa: Estibaliz Amorrortu